

BCA'37UK -Euskadi & BCA'37 UK **Gure bi elkarteen iragarki bateratua**

Pozik adierazten dizuegu aurten **Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua** erakundeari aurten emandako diru-laguntzetarako hiru eskaerek babesa jaso dutela.

Gogoan izango duzu **BCA'37UK - Euskadi** dirulaguntza eskaerak egin ahal izateko sortu zela batez ere, eta duela urtebete Eusko Jaurlaritzak ofizialki aitortu zuela ere bai.

Hiru beketatik lehenengoa Adrian Bell-en *"Solo Serán Tres Meses"* ("Only for Three Months" liburu klasikoaren itzulpena) inprimatzeko izango da.

Bigarren beka Natalia Benjamin-ek bildu eta editatu duen *"Memorias: Los niños vascos recuerdan y son recordados"* liburu elebiduna inprimatzeko izango da, (*"Recuerdos: Basque Children Refugees in Britain Britain"*-en jarraipena).

Bi liburu hauek Espainia/Euskadi eta Erresuma Batuko interesatuek, baita edonork ere, eskuratu ahal izango dituzte. Xehetasun gehiago sarean argitaratuko dira prest egon bezain laster. Hirugarrena, berriz, itzuli ziren maistren destinoen inguruko hiru urteko ikerketa proiektuari ekin ahal izateko ikerketa beka da. Proiektu hau Leeds-eko Unibertsitateko Peter Anderson-ek eta Santiago de Compostelako Unibertsitateko Antonio Miguez-ek zuzentzen dute, Euskal Herriko Unibertsitatearen, Madrilgo Complutense Unibertsitatearen eta BCA'37 UK & BCA'37UK- Euskadi -ren laguntzarekin..

Gogora-ri asko eskertzen diogu dirulaguntzak emateaz gain, eskaera prozesu osoan hainbeste laguntza ematea eta aurrerago haiekin lan egitea espero dugu.

Hauek dira gure bi elkarteen lehenengo lankidetzaproiektuak, eta pozik gaude, oztopoak oztopo, horietatik bat Coronavirus pandemia, lehen urrats arrakastatsuak batera eta arrakastaz eman ahal izan ditugulako. Hiru diru-laguntzekin bi aldeek ekarpen handia egin diegu lankidetzaproiektu horiei, elkarrekin aurrera egiteko oinarriak finkatuz.